

01/2017 UDALEKO OSOKO BILKURA

2017KO MARTXOAREN 1EAN IZANDAKO EZ OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA

Pedro M^a Estanga Lasa (EH Bildu taldea)

ZINEGOTZIAK:

Aratz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)

Izaskun Jauregi Saizar (EH Bildu taldea)

Josune Eizmendi Manterola (EH Bildu taldea)

Bakarne Olano Manzano (EH Bildu taldea)

BITARTEKO IDAZKARIA:

Pedro M^a Odriozola Zubizarreta

Anoetako udaletxean, 2017ko martxoaren 1ean arratsaldeko zazpiak direla, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko Ez Ohiko Osoko Bilkura antolatu da, Pedro M^a Estanga Lasa Alkatearen Lehendakaritzapean, eta Pedro M^a Odriozola Zubizarreta jauna, Bitarteko Idazkari lanetan aritu naiz.

Iñaki Merino Castro, Kepa De la Iglesia Sánchez, Francisco Berbel Perez eta Jose Ignacio Otermin Garmendia zinegotziak ez dute ezin etorria adierazi.

1.- **GAIKUNTZA NAZIONALEKO TOKI ADMINISTRAZIOKO FUNTZIONARIOEN LEHIAKETA ARRUNTEAN, UDAL HONETAKO HUTSIK DAGOEN IDAZKARI LANPOSTURAKO MEREZIMENDU ESPEZIFIKOAK JARTZEA.**

Udal honetako Idazkari lanpostua 2015eko abenduak 1etik aurrera hutsik egonik, Gaikuntza Nazionaleko funtzionarioentzat urtero ateratzen den lehiaketa arruntean, Udalak oinarri espezifikoak onartzeko ahalmena dauka eta Gipuzkoako Foru Aldunditik hori egiteko eskatu zaio udalari.

Aztertu dira Udal idazkariak araudi aplikagarria jarraituz proposatutako oinarri espezifikoak eta aho batez onartuak izan dira. Hauek dira:

Lanpostuaren ezaugarriak:

- 4. H.E. (derrigortasun data igarota).

- Maila: (Lanpostu zerrendaren arabera dagokiona)

- Osagarri espezifikoa (lanpostu zerrendaren arabera dagokiona)

1.- Proposatzen diren merezimendu espezifikoak:

1.1.- Emandako Zerbitzuak:

- 3. Mailako idazkaritza lanpostuetan, Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan emandako zerbitzuak: 0,05 puntu hilabete bakoitzeko (gehienez puntu 1).

1.2.- Ikastaro, master eta diplomak:

- IVAP-ek edo Euskal Autonomia Erkidegoko beste erakunde ofizialen batek antolatua , egindako 40 ordu edo iraupen luzeagoko ikastaroak, espezialitate juridiko-ekonomiko- administratiboei buruzkoak badira eta betebeharreko lanpostuarekin zerikusia badute: 0,1 puntu ikastaro bakoitzeko (0, 25 puntu gehienez).

- IVAP-ek edo Euskal Autonomia Erkidegoko beste erakunde ofizialen batek antolatutua, egindako graduondoko unibertsitate tituluak, masterrak, etab.... Zuzenbide adminisntratiboari buruzkoak eta gutxienez 200 orduko iraupenekoak badira: 0,1 puntu titulu bakoitzeko (0,25 puntu gehienez).

Berariazko merezimenduak egiaztatzeko modua:

- Emandako zerbitzuak: zerbitzuak eman direneko Toki Administrazioak egindako ziurtagiri bidez..

- Ikastaro eta diplomak: jatorrizko titulo edo diplomen kopia konpultsatu bidez.

Elkarrizketa: Bai (Ez da aurrikusten zenbatekorik elkarrizketaren ondorioz egin beharreko joan etorrien gastutarako).

2.- Epaimahaiaren osaera:

- Mahaiburua: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak izendatutako kide bat

- Mahaikideak:

- Gaikuntza nazionala duen Toki Administrazioiko funtzionario bat, , deitutako lanpostuaren maila berekoa edo handiagokoa.

- Gipuzkoako Foru Aldundiak izendatutako kide bat.

- Idazkari: Mahaikideetako bat.

Aipatutako proposamena bozketara eraman eta aho batez onartu da.

2.- ETXEGABETZEAK EKIDITEKO GIZARTE LAGUNTZEN AURREAN, FINANTZA ERAKUNDEEK DUTEN JARRERA SALATZEKO MOZIOA.

EH Bildu talde politikoak deialdiarekin batera banatu den ondorengo mozioa aho batez onesten da:

“Azkenaldian etxe kaleratzeen alorrean herritarren babeserako neurriak hartu diren arren, hauek gehienetan, kaltetuek epaitegietan egindako bidearen ondorio izan dira, eta ez instituzioek kontsumitzaileak babesteko edo finantza erakundeek bezeroen eskubideak errespetatzeko nahikoa borondate izan dutelako.

Ondorioz, ordaindu ezinda etxea galtzeko arriskuan dauden pertsona asko daude oraindik, baita etxea ez galtzeko gizarte laguntzetara jo behar dutenak ere.

Epaitegietan kaleratzeen aurka ari diren elkarteek eta kaltetuen babesean lanean ari diren abokatuek egindako urratsek, derrigortu egin dute Madrilgo Gobernuak legean egokitzapenak egitera, eta oraindik bide luzea badago ere, urrats positiboak izan diren neurrian, garrantzitsua da hauek betetzen direla ziurtatu eta herritarren eskubideen zaintza areagotzea.

Espainiako Gobernuak emandako urratsetako bat 6/2012 Erret Dekretua izan zen: Bitartekorik ez duten mailegudunak babesteko premiazko neurriak ezartzen dituena.

Guindos dekretu modura ezagutzen den honek, praktika onen kode bat ezartzen du, bere borondatez izena eman eta atxikitzen diren finantza erakundeei. Eta berau baliatuz, baldintza jakin batzuk betetzen dituzten bezeroek, mailegua ordaintzeko zailtasunak badituzte, zor duten dirua ordaintzeko 5 urteko etenaldi bat izateko aukera dute. Epe horretan soilik interesa ordaindu beharko dute, Euribor+0,25. Neurri honen helburua, denbora bitarte horretan mailegua ordaintzeko arazoak dituenaren egoera hobetu eta ordainketari aurre egiteko erraztasuna ematea da, bitartean etxea galdu gabe. Aipatzen dugun Arau honek, Praktika Bankario Egokien Kodeak alegia, atxikitako entitateak, familiaren batek mailegua ordaintzeko arazorik duela jakin bezain laister, Kode honen aplikaziorako beharrezkoa den informazioa eskuragarri jatzera behartzen ditu.

Aipatutako kode horretara, Euskal Herrian maileguak ematen dituzten finantza erakunde nagusiak batu ziren arren, kaleratzeen aurka lanean diharduten elkarteek arabera, finantza erakunde hauek egoera horretan dagoen jendeari ez dio aukera hau eskaintzen. Beraien egoera arintzeko lagungarri izan daitekeen formulazioa eskaini ordez, gain zorpetuko dituen beste mailegu bat eskaintzen diote edota abalista modura aritutakoari zorraren ordainketa eskatu.

Hainbat kasutan, egoerari aurre egin ezinda etxea galtzeko arriskuan egon daiteke jendea, aipatu kodea aplikatuz gero, ekidin ahal izango lukeena; era berean, jende askok gizarte laguntzetara jotzen dute, bizi duten une zailari aurre egiteko babes bila. Egoera honen aurrean finantza erakundeek hartutako konpromisoari eutsiko baliote, gizarte laguntza horiek beste behar batzuk asetzeko erabili ahal izango lirateke.

Egoera hau zuzendu, finantza erakundeek hartutako konpromisoak bete eta gizarte laguntza hauek beste behar batzuetarako erabilgarri izan daitezen, honako mozioa hau tarterako dugu Osoko Udal Batzarraren aurrean, bertan eztabaidatu eta onartu dadin:

1.- Udal honek, finantza erakundeen aldetik, mailegua eskatu eta ordaindu ezinean dauden bezeroekiko dagoen jokabidea irmoki salatzen du.

2.- Udal honek, herrian bulegoa duten finantza erakundeekin harremanetan jarri eta beraien jarduna nolakoa den ezagutzeko konpromisoa hartzen du; era berean, Praktika Onen Kodean izena eman zuten jakin eta hartutako konpromisoak bete ditzaten eskatzeko ardura ere bere gain hartzen du Udalak.

3.- Udal honek, Praktika Onen Kodeak derrigortzen dituen moduan, bere bezeroen artean aukera honen berri zabaltzeko neurriak har ditzatela esijitzen die herrian bulegoa duten finantza erakundeei.

4.- Udal honek, Praktika Onen Kodeari zabalkundea emateko informazio kanpaina bat garatzeko konpromisoa hartzen du. Bide batez, Gizarte Zerbitzuetara laguntza eske hurbiltzen diren herritarrei gaiaren inguruan informazio zehatza emateko baliabideak jarriko ditu udalak.

3.- TOLOSALDEKO GILTZARRIA HERRITAR DINAMIKAK TOLOSALDEKO GURE ESKU DAGOREKIN BATERA 2017KO MARTXOAREN 19RAKO GALDEKETAREN INGURUKO ERAKUNDE ADIERAZPENA.

EH Bildu talde politikoak deialdiarekin batera banatu den ondorengo erakunde adierazpena aho batez onesten da:

“Tolosaldeko Giltzarria herritar dinamika da, Tolosaldeko Gure Esku Dagoren enbor beretik sortua, eta gure herrian ere badu ordezkartza zabal bat. Martxoaren 19ko galdeketa antolatzea du xede, erabakitzeko eskubidea aldarrikatetik egikaritzera pasaz.

Eskualdeko herritar ororen bilgune izan nahi du Giltzarriak, erabakitzeko eskubidea, emaitzaren gaintik, gizarte kohesiorako dagoen tresna egokiena baita. Nolako Euskal Herria nahi dugun erabaki nahi dugu, gure herritik hasita, eskualdearen indarraz, eskualdeko biztanleon iritziaren babesaz.

Udal honek, herritarren ordezkartza duen heinean, begi onez ikusten du Martxoaren 19ko galdeketa, eta are gehiago, dei egiten die herritar guztiei bertan parte hartzera, iritzia agertzera. Herri bat garelako, erabakitzeko eskubidea dugulako eta herritarren garaia delako.

Guztion partehartzea ezinbesteko baldintza da erabakitze ariketa bat aurrera eramateko. Guztiok gara giltzarri. Martxoaren 19an, erabaki nahiaren espresio izango gara, ezberdinen arteko topagune, elkarbizitzaren giltzarri.

Europar martxan dabilen trena Euskal Herriko geltokira iritsi da, baita guk gobernatzen dugun herrira ere. Bertara igotzeko gonbitea luzatzen dizuegu herritar guztioi, honako galderaren inguruan zure iritzia ematera:

Nahi al duzu euskal estatu burujabe bateko herritarra izan?

Irudikatu dezagun jende zoriontsua herri libre batean.

Bozkatu, zure iritzia jakin nahi dugu! “

4.- “GUERNICA” GERNIKARA MOZIOA.

EH Bildu talde politikoak deialdiarekin batera banatu den ondorengo mozioa aho batez onesten da:

“1937ko maiatzetik ekainera bitartean, Pablo Picasso margolari eta artistak “Guernica” margolana sortu zuen. Lan honek, egun batzuk lehenago, Euskal Herritarren gune kuttun eta esanguratsuenetakoa zen Gernikak Condor Legio naziak Francoren agindupean jasandako bonbardaketa eta sarraskia salatzen du. Beraz, aurten 80 urte betetzen dira, bai bonbardaketatik, baita honen aurkako karraxi artistikoa sortu zenetik ere. Urteurren hau,

Gernika zein Euskal Herritarren beste eskaera eta garraxi bat zabaltzeko ere une egokia ikusten dugu: “Guernica” margolana Gernikan kokatu dadila behin betikoz.

Margolana 1937an sortu zen eta Parisko Erakusketa Unibertsalean kokatu zuten. Harrez geroztik mundu guztian ezaguna bilakatu da, giza eskubideen zanpalkuntza, gerraren eta herritarren aurkako jazarpena ozenki salatzen duelako.

Aipatutako artelanak ez du zentzurik Gernika eta bere historiari lotua ez baldin ba dago, hura izan bait zen margolari ezaguna gertatuaren izugarrikeria salatzeraz eraman zuena. Horren

jakitun, Gernika eta Euskal Herriak behin baino gehiagotan aldarrikatu izan du, aipatutako margolana Madrilgo Reina Sofia Museoan egon ordez, Gernikan bertan egotea dela egokia.

Behin baina gehiagotan eskari hau luzatu arren, Madrilgo Gobernu ezberdinek, bereziki garraio eta mantentze arrazoi teknikoak aipatuz, “Guernica” bere etxera ekartzera ukatu egin izan dira. Gaur egun, garraio eta mantenurako beharrezkoak diren baldintza guztiak betetzeko arazorik ez dute Euskal instituzioek eta ez da sinesgarria egiten argudiategi hori mahai gaineratzea. Beste behin ere, Madrileko Gobernuak dituen interes ekonomiko zein politikoak daude “Guernica” Euskal Herrira ez ekartzeko arrazoi nagusien nagusien artean.

Sufrimendu guztien aitortza egingo duen memoria historiko bat eraikitzea ezinbestekoa den honetan, beste behin ere, margolan honek, bonbardaketa jasan behar izan zuen Gernika herrian kokatuta, bere indarra eta salaketaren sakontasuna biderkatu egiten duela aldarrikatu nahi dugu. Eta ezinbestean “Guernica”-k Gernikan egon behar duela. Ondorioz, honako mozio hau aurkezten dugu Anoetako Udalaren Osoko Udal Batzarrean, bertan eztabaidatu eta onartu dadin.

1.- Udal honek, Gernikako herriaren aurka 1937an egindako sarraskian oinarritutako Picassoren “Guernica” margolanaren kokapenik egokiena, Gernika dela adierazten du. Gertaera historikoa, artelana eta herria bera uztartzea funtsezkoa dela adierazten du Udal honek. Ondorioz, “Guernica” Gernikara ekartzeko eskaera formala luzatzen dio Espainiko Gobernuari eta Kultura Ministeritzari.

2.- Udal honek, Eusko Jaurlaritzari dei egiten dio, Picassoren Guernica margolana Gernikan kokatu ahal izateko beharrezkoak diren urrats instituzionalak eman ditzan. Baita ere, margolan hori Gernikan kokatzeko beharrezkoak diren azpiegitura eta egokitzapen lanetan laguntzeko ere.

3.- Udal honek bere egiten du Picassok margolanarekin mundu guztira zabaltzeko nahi izan zuen salaketa, alegia, herrien zein giza eskubideen aurkako zapalketa, gerra eta genozidioaren salaketarik ozenenarekin.

4.- Udal honek, erabaki honen berri emango die, Eusko Jaurlaritzari, Espainiako Gobernu eta Kultura Ministeritzari.

Euskal Herrian, 2017ko otsailean”

5.- ALKATE KURDUEKIKO ELKARTASUNA ADIERAZTEKO MOZIOA.

EH Bildu talde politikoak deialdiarekin batera banatu den ondorengo mozioa aho batez onesten da:

“2016ko uztailearen 15ean estatu-kolpe saioa egon zen Turkian Recep Erdogan presidentearen gobernuaren kontra. Harez gero, eta saioa hori aitzakiatzat hartuta, Turkiako gobernuak lehenagotik zetorren errepresioan eta giza eskubideen urraketan sakontzeari ekin zion.

Errepresioaren ondorioz 2016ko uztailetik hona, 100.000 bat mila langile publikok beren lana galdu dute, 700 inguru unibertsitate-irakasle egotzi dira, 1.500 gizarte zibileko erakunde legez

kanpo utzi dira eta hamarnaka batzuk komunikabide itxi dira. Halaber, ordezkari politikoak kartzelaratu egin dira, nagusiki, herri kurduaren ordezkariak. Ezin da ahaztu, bestalde, Turkiako armada Kurdistango lurretan egiten ari dituen operazio militarrek zeinetan herriak suntsitzeaz gain ehunka zibil dituen.

Bestetik, atzen hilabete hauetan zehar, 50tik gora herri kurduetan herritarrek demokratikoki aukeratutako alkateak dekretuz kargugabetu ditu Turkiako gobernuak inongo prozesu judizialik gabe. Horietako 39 kartzelan sartu dituzte. Erdonganen AKP alderdiko kideez ordeztu ditu Turkiako gobernuak, muzin eginez herritarrek demokratikoki adierazitako aukerari.

Oinarrizko giza eskubideak, askatasun demokratikoak eta adierazpen-askatasunak balio gutxiko baloreak dira gaur egun Turkian, bereziki, gobernuan dagoen AKP bezala pentsatzen ez duten herritarrentzat.

Horren guztiaren ondorioz, Anoetako udalaren osoko bilkurak honokoa erabaki du:

1. Salatzen duela azken urteotan, eta bereziki 2016ko uztailaren 15eko estatu-kolpe saioaren ondorioz, Turkiako gobernuak hartu duen jite autoritarioa, zeinen ondorioz herritarren oinarrizko giza eskubideak eta printzipio demokratikoak etengabe larriki urratzen ari baitira.
2. Bereziki larria iruditzen zaiola herritarrek demokratikoki hautatutako ordezkariak, alkateak kasu, gobernuak dekretuz kargugabetu izana.
3. Elkartasuna adierazten diela alkate horiei eta arrazoi politiko soilengatik kargugabetu edo kartzelaraturako ordezkari politikoei.
4. Bat egiten duela joan den azaroaren 24an Europako Parlamentuak hartutako erabakiarekin non Turkiaren adhesio-prozesua izoztea eskatzen baitzen, estatu horretan demokraziaren oinarriak jasaten ari diren higadura arrazoitzat hartuta.
5. Eskatu egiten diola Turkiako gobernuari errepresioarekin buka dezala, oinarrizko askatasun demokratiko guztiak berrezar ditzala eta lehenera diezazkiekeela errepresioa sufritu duten herritar eta erakunde guztiei aurretik zituzten eskubide guztiak, lanpostura itzultzekoa barne.
6. Erabaki honen berri ematea Turkiako Errepublikak Madrilen duen enbaxadoreari.

Euskal Herrian, 2017ko otsailean”

6.- 2017KO MARTXOAREN 8AREN INGURUKO ERAKUNDE ADIERAZPENA.

EH Bildu talde politikoak deialdiarekin batera banatu den ondorengo erakunde adierazpena aho batez onesten da:

“Diskurtso ofizialek krisia merkatuen errentagarritasun galeragatik sortu zela esan zigutenean, emakumeon eskubideak denboraz luzez zeudela krisian ekarri genuen gogora. Orain berriz, ustez krisitik irteten ari garenean, emakumeon eskubideak inoiz baino krisi latzagoan kokatuak daudela esan behar dugu.

Esparru publikoari dagokionean, bertan gauzatu diren murrizketek bereziki eragin dute emakume eta gizonen arteko desoreka areagotzea: 0-3 bitarteko heziketa zentroen sarea handitzen ez joateak, haur-eskolak murrizteak, helduentzako eguneko zentroetan zein

geriatrikoetan dauden itxaron-zerrendak, esparru publiko horretan burutu beharreko zaintza

eta artapen lana esparru pribatura ekarri du, emakumeek betetzen duten ordaindu eta aitortu gabeko esparru pribatura.

Honi guztiari erantsi behar zaio EPEetan dauden muga zorrotzak, ordezkapenak ez direla betetzen ari, hainbat lanpostu amortizatzen ari direla, 35 lanorduko asteak ez direla berreskuratzen ari, emakume askok lan egiten duen sektorean, administrazio publikoan, lanaldiko baldintzen berdintasuna urratu eta emakume langileen bizkar erortzen direlarik bereziki murrizketa hauek guztiak.

Eta herritar gisa dagozkigun eskubideen jasotzaile ez garenez hainbatetan, aldian aldi eskatu beharreko laguntza publikoen jasotzaile bilakatzen gaituzte, uneko borondate politikoak ezarritako aurrekontu eta baldintzen menpeko bilakatuz emakumeak.

Osasun sistema publikoan izaten ari diren murrizketek ere (ohe gutxiago, langileen murrizketak, osasunari begirako prebentzio zerbitzuen murrizketa, kribatuetan edota umetoki zein bularreko minbiziaren prebentziorako frogei eusteko adin mugaren igotzeak besteren artean), emakumeen osasunean eragin dute atzerako eraginarekin.

Berdintasunaz eta indarkeria matxistaz arduratzen diren departamentuei begiratzuz gero berriz, erakunde nagusietako aurrekontu orokorrarekin alderatuz gero, berdintasun eta indarkeriaren artapenerako partidak izoztu edota behera egin dutela ikusi dugu.

Esparru pribatuan ere, aldi baterako lanaldiak, lansari eskasak, egun gutxi batzuetarako kontratu sistema prekarioak, bereziki emakumeei zuzenduak izan dira.

Eta honek guztiak eragin du, emakumeak sistema produktibo prekarizatuan eta erreproduktibo hainkargatuan aritu behar izatea.

Emakume eta gizonen arteko berdintasunak aurrera egiten ez badu, atzera egiten du, maldan gorako lana baita berdintasunari egokitzen zaiona, eta neurri horretan, aurrera egiten ez duen oroko egiten baitu atzera.

Garaia da erakundeetan berdintasunaren aldeko hautua egiten dugula esatearekin batera, konpromiso zehatzak hartuz garatzea.

Horregatik, 2017ko martxoak 8 honetan, ondorengo adierazpen proposamena egiten dugu, osoko bilkurak onartu dezan.

EBAZPEN PROPOSAMENA

1.- Anoetako Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du azken bi legegintzaldietan zerbitzu publikoetan izandako murrizketen genero-azterketa egin eta hauekin atzerta egiteko neurriak proposatzeko.

2.- *Anoetako Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du legegintzaldian murrizketarik ez burutzeko herritarrei zuzendutako zerbitzu publikoetan, bereziki emakumeengan eragingon duten zerbitzuei dagokionean.*

3.-*Anoetako Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du berdintasun partidak igotzeko 2017tik 2019ko aurrekontuei dagokionean.*

4.-*Anoetako Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du murrizketek emakumeengan eragin dituzten ondorio kaltegarriak ikusarazteko jendarteratze lanari eutsiko diola.*

Anoetan, 2017ko martxoaren 6an.”

7.- GURE SEGURTASUN EREDU PROPIO BATEN NORABIDEAN, ESPAINIAKO INDAR POLIZIALEN ERRETIRATZEA GALDEGITEKO MOZIOA.

EH Bildu talde politikoak deialdiarekin batera banatu den ondorengo mozioa aho batez onesten da:

“GURE SEGURTASUN EREDU PROPIO BATEN NORABIDEAN, ESPAINIAKO INDAR POLIZIALEN ERRETIRATZEA GALDEGITEKO.- MOZIOA.

Euskal Herria, Europako polizia eta indar armatu ratiarik altuena duen herria da. Kalkuluen arabera, lurralde osoan 23.000 efektibo daude, 3.000.000 biztanle dituen eremu batean. Europako erakundeek aholkatzen duten estatistiken arabera, 6.000 polizia efektibo izan beharko lirateke. Honek gainera, kostu ekonomiko izugarria du, 1.500 milioi euro ingurukoa urteko, zuzenean edo kupo moduan euskaldunok ordaintzen duguna.

Bertako polizia indarrez gain, Estatuetako indar armatu eta polizialen presentzia izugarria da. Hamarkada luzeetan bizi izan dugun gatazka armatuaren baitan, espainiar zein frantziar indar armatuak herri honetan izan duten presentzia biderkatu egin da. Bost urte luze badira, Aieteko Adierazpenaren baitan gatazka armatua herri honetatik desagertu zenetik. Hala ere, espainiar zein frantziar indarren presentziak bere horretan jarraitzen du. Inolako logikarik gabe burutzen dituzten funtzioak bikoizteaz gainera, egunerokoak dira oraindik hiritarren oinarritzko eskubideak justifikaziorik gabe murrizteko ekimenak: errepideetako kontrolak, identifikazioak, jazarpenak... Euskal Herritarren gehiengoak iragan hori gainditu nahi duen honetan desmilitarizazioaren eremuan urratsak emateko garaia heldu da. Euskal eragile eta instituzioek bat egin behar dute beren jardun politiko eta instituzionalean norabide horretan.

Modu mailakatuan Euskal Herritik Estatuko Segurtasun Indarren erretiratzea beharrezkoa dela uste dugu. Era berean, herritarren babes eta zerbitzu lanak Euskal Poliziek betetzea da eman beharreko beste urratsa.

Atalka egin beharreko bide horretan, Estatuko Segurtasun indarren kopuru eta funtzioa gaur egun indarrean dagoen legedira egokitu beharko litzateke. Iraganen gertatu diren egoerak ezin dira aitzakia izan, gaur egun gure herrian dagoen indar armatuen

dentsitatea mantentzeko. Indarrean dagoen legediaren arabera, eta modu progresiboan Ertzaintzak eta Nafarroako Foruzaingoak beren gain hartu beharko lituzkete herritarren babes eta zerbitzu lanak, dagokien mailan herri bakoitzeko Udaltzainekin batera.

Hau guztia kontutan izanik, Anoetako EH BILDUK, honako ebazpen proposamena aurkezten dio Osoko Udal Batzarrari, bertan eztabaidatua eta onartua izan dadin:

1.- Udal honek, Espainiako Polizia Nazionala, Guardia Zibila eta Espainiako Armadaren errepliege osoa aldarrikatzen du.

2.- Udal honek, indarrean dagoen ordenamendu juridikoan ezarritakoaren arabera eta Eusko Legebiltzarrak gehiengoz onartutako 111/2013 Legez besteko proposamenarekin bat eginik, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari eskatzen dio EAeko lurraldean egin beharrezko errepliege plangintza burutu dezala eta Legebiltzarrean aurkeztu dezala, bertan eztabaidatua eta onartua izan dadin.

3.- Udal honek, Jaurlaritza eta Espainiako Gobernuako Barne Ministerioa biltzen dituen Segurtasun Batzordean Legebiltzarrak onartutako plan hori gauzatzearen beharra aldarrikatzen du.

4.- Udal honek hartutako erabaki honen berri emango die herritarrei, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari, Espainiako Barne eta Defentsa Ministerioei eta Espainiako Gobernuaren Presidenteari.

Euskal Herrian, 2016ko abenduan. EH BILDU”.

8.- GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ERAKUNDE ARTEKO ESPAZIORA ATXIKITZEKO ERABAKIA.

Gipuzkoako Foru Aldundiak *Lurralde Historikoko Herritarren partaidetzarako erakunde arteko espazio bat sortzeari buruzko Foru Dekretua* onartu du, bere bigarren artikuluan zehazten duen moduan ondorengo helburuekin:

- a) Sare bat edo erakunde arteko topaketa espazio bat eratzea Lurralde Historikoko maila anitzeko gobernuen ikuspegitik, batik bat, foru gobernuaren eta tokiko gobernuen ikuspegitik, eta horren helburua herritarren partaidetzarako politikak sustatzea izango da, herritarren eta erakundeen arteko erlazioak indartu daitezen.
- b) Herritarren partaidetzaren arloko erakundeen esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzeko espazio bat ezartzea, alor horretako elkarrekiko ikaskuntzako erakunde-komunitatea eta hobekuntza instituzionala sustatuta.
- c) Laguntza eta lankidetzak teknikorako bideak hedatzea Espazioan dauden erakundeek betebeharrak arauemaileak egikaritzeko, araudiak eta ordenantzak onartzeko eta herritarren partaidetzarako metodologiak, prozesuak eta tresnak martxan jartzeko.
- d) Herritarren Partaidetzako alorrean Foru Aldundiaren diru laguntzen politika zehazten laguntzeko tresna izatea.

e) Prestakuntza programak eta jardunaldi espezializatuak sustatzea, baldin eta zeharkako alor honetan eskuduntzak dituzten kargu publiko adierazgarrien eskumen instituzionalak indartzen badituzte eta herritarren partaidetzaren alorreko foru eta udal zuzendari eta teknikarien gaitasun profesionalak garatzen badituzte.

Udal honen nahia Espazio horren parte izatea izanik Osoko Batzarrari proposatzen zaio atxikimen adierazpen hau onartzea.

Halaber, Foru Dekretuak bere Hirugarren Xedapen Gehigarrian zehaztu moduan, atxikimen honek bere gain konpromiso hartzea eskatzen dio.

Gaia aztertuta zera erabakitzen da:

1. Anoetako Udala Foru Dekretuak sortzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Herritarren partaidetzarako erakunde arteko Espazioari atxikitzea.
2. Foru Dekretuak bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren arabera zehaztutako konpromisoak beregain hartzea.
 - a) Arlo politikoan nahiz teknikoan modu aktiboan parte hartzea Espazioko organo edo egituretan esleitutako pertsonen bitartez.
 - b) Espazioaren funtzionamendua sustatzea, proposamenen eta ekimenen bitartez.
 - c) Foru Aldundiak, tokiko erakundeen mesedetan, sustatuko dituen herritarren partaidetza arloko diru-laguntzen lerroei buruzko iritziak definitzeko eta zehazteko prozesuetan parte hartzea eta eztabaidatzea, betiere Espazioko organo edo egitura eskudunen bitartez.
 - d) Proposatzea partaidetzarako programa zehatzak, prestakuntza programak, topaketak, mintegiak eta prestakuntzako beste hainbat jarduera, Espazioko organo edo egitura eskudunek eztabaidatu eta onartu ditzaten.
 - e) Gida metodologikoak eta herritarren partaidetzarako onuragarriak izango diren beste edozein baliabide edo tresna proposatzea, bereziki partaidetzazko aurrekontuen ereduak eta estrategiak diseinatzea.
 - f) Espazioan ezartzea partaidetza alorreko praktika onak, bertan parte hartuko duten erakundeen ezagutza handitzeko eta herritarren partaidetzako foru, udal eta tokiko erakundeen politikak hobetzeko.
 - g) Espazioaren aurrekontuak ezagutzea eta, behar bada, gai horren inguruan eztabaidatzea organo edo egitura eskudunen bitartez.

- h) Partaidetza alorrean Foru Aldundiak burutuko dituen laguntza tekniko eta lankidetzako prozesuetan udalei eta tokiko erakundeei laguntza ematea, arazoak edo gai irekiak behar bezala identifikatzeko, erregelamendu nahiz ordenantza-tipoak eta proposatutako gida metodologikoak sustatzeko, eta herritarren partaidetzako tokiko politikak hobetzera bideratutako Espazioaren beste edozein ekimen bultzatzeko.
 - i) Espazioa dinamizatzea egungo egituren bidez, eta foro teknikoak koordinatzea, hala behar bada.
3. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzari erabaki honen berri ematea.
4. Gipuzkoako Lurralde Historikoko herritarren partaidetzarako erakunde arteko espazioko plenarioko kide izateko Anoetako Udaleko Udalbatzarren ordezkari gisa Pedro M^a Estanga Lasa alkatearen izendapena onartzea.

Aipatutako proposamena bozketara eraman eta aho batez onartu da.

Eta beste aztergairik ezean, Alkate Jaunak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zazpiak eta hamabost direnean; guzti honetaz, nik, Bitarteko Idazkariak, fede ematen dudalarik.